

Arnas aparatuko gaixotasunek eragindako ospitaleratzeak %12 gehitu ziren 2015ean Euskal AEn


Begi-lausoa 24.000 aldiz pasa operatu zen

Eustaten datuen arabera, 2015. urtean Euskal AEko ospitaleetan 321.039 alta eman ziren, aurreko urtean bezalatsu. Aurreko urtearen aldean arnas gaixotasunengatik ospitaleratzeak (31.500) %12 gehitu ziren, 2015eko laugarren ospitaleratze kausa (seigarrena 2014an); gaixotasun hauen artean neumonia nabarmentzen da batez ere 80 urte eta gehiagokoen artean, eta bronkitis kronikoa 75-84 urte arteko gizonengan.

Ospitaleratzeen %79 publikoetan, %21 pribatuetan; emakumeak %51, gizonak %49. Erditzea eta haurduntza ez badira kontuan hartzen, %53, gizonak.

Jendea gero eta adinduago ospitaleratzen da. 65 urte eta gehiago, %47,6k (2014an %46,5); haien arteko %41,1ek 80 urte edo gehiago; kolektibo hau bikoiztu egin da azken hamabost urteetan.

1 grafikoa: Altako pazienteak, gaixotasun ugarienen arabera. 2015



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Gaixotasunen sailkapen normalizatuaren arabera, nerbio-sistemako eta sentimen-organoetako gaixotasunak aurren ospitaleratzeetan (%13,8); begi-lausoagatik gehien bat (24.766 kasu).

1 taula: Euskal AEko ospitaleetan alta hartutako pazienteak, gaixotasun ugarienen taldeen arabera. 2015

Diagnostiko-multzo handiak	Guztira	%	Aurreko urtearekiko aldea
Total	321.039	100,0	0,1
Nerbio-sistema eta zentzumen-organoak	44.447	13,8	0,0
Digestio-aparatua	37.622	11,7	0,5
Zirkulazio-aparatua	37.404	11,7	2,2
Arnas-aparatua	31.495	9,8	12,0
Osteomuskularrak	28.938	9,0	-2,9
Tumoreak	28.109	8,8	-3,5
Hausturak eta lesioak	23.618	7,4	1,5
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	22.150	6,9	-2,5

(*) Alta guztien gaineko %

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Ondoren, digestiboaren gaixotasunak (%11,7); zirkulazio sistemarenak (%11,7); arnas sistemarenak (%8,8), osteomuskularrak (%9), tumoreak (%8,8).

Emakumeen artean, haurduntza, erditze eta erdiberriarogatiko kasuak beheraka berriz ere (%-2,5), bigarren (%13,5) nerbio-sistema eta sentimen-organoen atzetik (%15,2); azken hauek batez ere 70 urte eta gehiagokoei eragiten diete.

Gizonak gehien bat aparatu digestiboagatik (%14, batez ere iztai-etena) eta zirkulazio-aparatuagatik (%13,6, gutxiegitasun eta arritmia kardiakoak, batez ere 80 urte eta gehiagokoen artean).

Heriotzak ospitaleetan (7.949) %8,3 gehitu 2015ean. Heriotza-eragile nagusiak: zirkulazio-sistemaren gaixotasunak eta tumoreak (%43) eta arnas-aparatukoak (%+16,7 aurreko urtekoen aldean).

Batez besteko ospitale-egonaldia 5,7 egun 2015ean. Egonaldirik luzeena buru-nahasteek (13,2 egun batez beste); jaiotza-ingurukoek (10,9); gaixotasun infekziosoek (8,8), tumoreek (7,3).

Oharra: Gaixo akutuen ospitaleetako datuak. Ohiko ospitalizazioak hartu dira aintzat, gau batekoak gutxienez, eta egun berean burutzen direnak. Batez besteko egonaldia kalkulatzeko, eguneko egonaldiak ez dira kontuan hartu.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Ospitaleetako erikortasun-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Ospitaleetako erikortasun-estatistika. Datu bankua